

Diru-laguntzak, nolako laguntzak?

• **Imanol eta Jon Ander Ubeda (Bide Ertzean):** “Euskalgintzan ari gara lanean, eta maiz tokatu zaigu diru-laguntzak eskatzea. Diru-laguntza bat eskatzen denean aurrekontua egiten da: sarrera batzuk eta gastu batzuk, eta defizit bat aurreikusten da. Defizit horri aurre egiteko eskatzen da diru-laguntza. Kepa Junkeraren kasuan zer dago, 704.000 euroko defizita?.”
(Argia, 2009-1-25)

• **Natxo De Felipe (Oskorri), Berrian, honako galdera honi erantzunez:** *Ez zaude administrazioaren jokabidea salatzen 250etik gora musikarik babestutako manifestuaren sinatzaileen artean. Ondo iruditzen zaizu Eusko Jaurlaritzak 702.000 euroko diru laguntza eman izana Kepa Junkerari?*

Gai korapilatsua da, eta niretzat korapilatsuagoa. Maitasun haremanak edo familia harremanak daudenean ez zaude behartuta auzitara jotzera. Kepa praka motzetan ezagutu genuen.

Trikitia jotzen zuen eta gurekin hartu genuen, gurekin atera zen plazara. Eta gero, jakina, egin du bere ibilbidea. Gauza horiek konplikatuak dira. Eta nik bere kasuaz hitz egin eta sinatu baino gehiago nahiago izan dut ez egin, harreman afektibo bat dago-elako. Nire ustez, administrazioa guztiz erraturik eta okerturik dago. Eta Keparen kasuaz baino, nahiago dut gureaz hitz egin. Oskorrik 37 urte egin ditu plazan, eta orain pare bat urte plazara-tu genuen 35. urteurrena ospatzeko proiektua: *Banda band*. Eta horren kariatara aurkeztu genuen *dossier* bat euskal gobernuan. Batik bat, esportatzeko. Akaso kanpoko bandek interesa izango zuten Oskorriarekin aritzeko. Txostena aurkezteaz batera, bilera eskatu genuen. Uste dut Oskorrik, adinagatik bakarrik bada ere, errespetu minimo bat merezi duela. Eta ez ziguten bilerarik eman. Ez ziguten erantzun ere egin. Uste dut hori nahiko larria dela. Ni oso minduta nago, uste dudalako oso talde gutxi egin dutela 37 urteko ibilbidea Euskal Herrian euskaraz kantari, eta erantzun bat edo bilera bat merezi genuen, behintzat.”

(Berria, 2008-12-31)

GALBAHEA

Esteban Larrañagak merezitako **omenaldia** jaso zuen **2004ko San Jose eguneko EITBren trikiti jaialdian**. Zita hori berriz ere esku-eskura dugunez, Esteban Larrañagak orduko elkarrizketa batean adierazitakotik hainbat aipu ekarri ditugu ondoko lerroetara. Trikitixaren egoeraz honela mintzo zaigu Larrañaga:

“Zoritzarrez beherakada nabarmena izan du. Gauza guztietan bezala zikloak izango dira, baina azken 12 bat urte hauetan txapelketa nagusia falta izanak bere garrantzia izango du. Dena den, zikloak izaten direnez, berriro ere etorriko da beste ameslariren bat atzetik eta txapelketak antolatuko dira. Elkartea hor dago eta, nire ustez, indartuta dago; baina, beharbada, ez dute nik bezala txapelketa beharrik ikusten. (...) Jaialdiek eta erromeriak geroz eta indar gutxiago dute eta telebistak ere trikitixa indartuko duen ezer egiteko gogo handirik ez du. Urtean bi saio eskaintzen dituzte eta nire ustez hori ez da nahikoa espediente bat betetzeko.”

(Otamotz, 2004, 94.znb)

KALEJIRAN

- **GOSE taldeak eta Kepa Junkerak Espainiako Musika sarietarako izendapena jaso dute. Arrasateko Gose taldearen 16 eskailera abestiak** jaso du euskarazko abesti onenaren izendapena. GOSE-ren “16 eskailera” abestiarekin batera, Fermin Muguruzaren “Balazalak” eta Benito Lertxundiren “Mirotzak” kantuak ere izendatu dituzte kantu onenaren sailean.

Bestalde, Kepa Junkeraren Etxea diskoak Musika Tradizionaleko Disko Onenaren sarirako izendapena jaso du. Sariak **martxoaren 12an** banatuko dituzte Badajozko Kongresu Jaurerrian, eta orduantxe uxtatuko dira zailantzak.

ALTZA PORRU!

2009ko martxoa / 32.zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea
L.G.: SS-418/01

SANJOSETAKO TRIKITI JAIALDIA



lazko emanaldiko une bat

Euskara eta trikitixa indartu eta hedatzeko asmoz, urtero egiten den emanaldia da Azpeitiko ekitaldi hau. **Euskal Herriko Trikitixa Elkartea** eta **Azpeitiko Udala** arduratzen dira jaialdi hau antolatzeaz, betiere San Jose egunaren inguruan. Aurten **martxoaren 15ean** da hitzordua, **igandean**. Bestalde, lehengo urteko formatuari eutsi nahi zaio, eta, hori dela eta, **Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan** bilduko dira trikitilariak.

- Azpeitiko emanaldira hurbiltzen denak **talde hauek** entzuteko parada izango du:

• **Xabi Arakama eta Trikitizio**

• **Jon Ostolaza eta Rakel Pujana**

• **Roberto eta Kepa, Ajuria eta Enbeita**

• **Ansa ahizpak**

• **Edurne Errandonea eta Ander Beldarrain**

• **Gozategi**

• **Omenduak:**

• **Joxe Oñaederra “Urki”**

• **Joxe Makazaga “Ziolar”**

Jaialdi honen aitzakian, plazarik plaza aritu diren trikitilariak omentzeko beta ere hartzen da, eta aurten **Joxe Oñaederra “Urki”** eta **Joxe Makazaga “Ziolar”** omentzea pentsatu da. Urteetan herririk herri eta plazarik plaza soinu eta panderoarekin nahiz bateriarekin egin duten lanari behar bezalako eskerra ematea da ekitaldi xume honen guraria. Gainera, trikitilari bikote hau gerora etorri den hainbat trikitilari belaunaldiren maisu eta erreferentzia ere izan da.

Aurkezle lanetan, aurreko bi saioetako ohiturari jarraituz, **Laxaro Azkune** arituko da aurten ere. Osagai hauek guztiak aintzat hartuta, trikitixa zale izanez gero, baduzue non gozatua.

Urki eta Ziolar



EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN URTEROKO BATZAR NAGUSIA



Batzarra bukatuta ateratako argazkia Aiako plazan

Urtero legez, **Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak** egin du Batzar Nagusia, eta hainbat gai jorratu dira bertan. **Otsailaren 28an**, larunbatean, bildu ziren hainbat lagun Aiako kultur etxean; 2008ko egitasmoen balantzea egin eta 2009rako aurreikusten direnen berri emateko. Era berean, Zuzendaritza Batzordea ere berritu da. Hauexek dira **Zuzendaritzako partaideak**:

Lehendakari berria: **Mikel Gorrotxategi “Alabier”**

Lehendakariorde: **Alaitz Telletxea**

Idazkaria: **Agurtzane Aizpuru**

Diruzaina: **Juanjo Manterola**

Bokalak: **Iosu Arrizabalaga “Izer”, Oihane Egurtza, Iker Goenaga, Mikel Markez eta Jon Ostolaza**

Batzarraren ondotik, bertan bildutakoak Aian barna ibili ziren kalejiran, eta bazkaria ere egin zuten, umore onean.

Batzarraren ildoari tiraka, nabarmentzeko puntu bat bada tartean. Beste behin ere **trikitilariei beren emanaldien agenda elkartera bidaltzeko gogorarazi** zitzairen; **trikitixa.net** helbi-dearen bitartez, saio guztien data eta lekuak edonoren eskura jartzeko aukera polita baitago.

2008ko egitasmoak errepasatu ostean, 2009rako adostutako egitasmoak izan zituzten eztabaidagai. Hainbat egitasmo zehaztu zituzten, eta beste batzuen kasuan, berriz, oraingoz datak baino ez dira finkatu.

• 2009ko EGITASMOAK

Hona hemen adostutako egitasmoen zerrenda eta hainbat xehetasun.

• AUSPO KONTARI

- ✓ **Trikitilari zaharren testigantzak** biltzeko proiektua martxan jarri da
- ✓ Elkarriketak bideo grabazioetan egingo dira
- ✓ **www.trikimailua.com** webgunearen bitartez plaza-ratuko dira sarean
- ✓ Lehengo trikitixaren berri garaiko protagonisten ahotik entzuteko aukera izango da, eta interesa lukeen edonoren esku jarriko dira

• “ARRAKASTA ARRASTAKA” PARTITURA-LIBURUA

- ✓ **Soinua paperean** bildumaren **bosgarren alea** izango da
- ✓ **1980 eta 1990. hamarkadetako pieza ezagunen**en partiturak bilduko dira: besteak beste, Tapia eta Leturia, Maixa eta Ixiar, Gozategi, eta Alaitz eta Maider, Etzakit, Kristina eta Amaia, Epelde eta Larrañaga, Kupela, Trikitake, Kepa Junkera eta Iker Goenaga.
- ✓ **Pieza zaharrekin egin den bezala, orain garai berrietako arrakastetara** jauzia egingo da liburu honekin.
- ✓ **Irakaskuntzarako material** baliagarria sortuko du Elkarteak. Era berean, trikitixa-ikasleak gogoan, puripurian egondako kantuen materiala ere bilduko da.

• INPERNUKO POZA, VII JARDUNALDIAK

- ✓ **Irailaren bigarren hamabostaldian** egingo dira, Donostian, Euskal Jaien baitan
- ✓ Orain arteko harrera ona ikusita, **zazpigarrenez jarraian** antolatuko dira, baina oraindik ez da gairik erabaki

• IRAKASLEEN LAN-TALDEA

- ✓ Trikitixa-eskolekin egindako **harremanetik** sortuko da irakasleen **lan-taldea**
- ✓ Irakasleek osatutako lan-talde honek eskoletako dinamika eta beharrak aztertuko ditu, **hezkuntzarako lan-metodoak** zehazteko asmoz
- ✓ Ikasleei begira, **egitasmo jakinak** ere garatuko dituzte: hala nola, Trikitixa Eguna, ikastaroren bat, formaziozko materiala... Taldeak beharrezkotzat jotzen duena, finean.

• FABOREZ III-ren AURKEZPEN ERROMERIAK

- ✓ Aurrekoen arrakasta ikusita, Faborez disko berriaren **bi aurkezpen** egitea erabaki da
- ✓ **Hego eta Ipar Euskal Herrian** erromeria bana egingo da
- ✓ Hiru helburu beteko dituzte aurkezpen ekitaldi hauek: **erromeria-giroa bultzatzea, grabatutako materiala plazaratzea eta diskoaren promozioa** egitea

• NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA

- ✓ **Azaroaren 21ean** izango da, **Donostiako Victoria Eugenia**n.
- ✓ Bizkaiko saioa, bezperan, azaroaren 20an egingo da Getxoko Andres Isasi musika eskolan.
- ✓ Jaialdiaren **muina erabakitze**ko dago oraindik

• DURANGORA BEGIRA

- ✓ Urtero bezala, euskal kulturgintzaren erreferentzia den **Durangoko Liburu eta Disko Azokan stand-a** izango du Trikitixa Elkarteak

Disko berriak Laja eta Mikel: NON ZUZTARRA, HAN ADARRA

Non Zuztarra, han adarra, halaxe du izena Laja eta Mikel bikoak argitaratu berri duen bigarren lanak. **Iñaki Garmendia Laja** trikitilari ezaguna berriro ere estudioan sartu da beste disko bat grabatzeko, **Landakanda** erretiratu zenetik alboan izan duen **Mikel Alustiza** (Zumarragako Jose Oria trikitilari historikoaren senitartekoa) pandero-jotzaile eta kantariaren laguntzaz.

LAJA ETA MIKEL bikotearen bigarren disko hau herri girokoa, freskoa, alaia eta biribila da, baina batez ere kalitate handiko musika entzun daiteke, trikitixaren maisuaren eskutik. Diskoak hamalau kantu biltzen ditu eta gure herri txikietako zapore bizia zabalduko du lau hai-zetara.



Lan honetan hainbat musikari izan dituzte bidelagun: **Jean Phocas** teknikaria, **Ramon Zubizarreta Landakanda** bera, eta **Fernan** eta **Mikel Irazoki** beratarrak. Landakandaren parte-hartzeak ukitu berezia eman dio diskoari, garaiko erromeria giroa ezin hobeto gogora ekarri. Oro har, lan freskoa eta gozagarria biribildu dutela esan genezake.

Argazkiak Sarean



www.trikimailua.com webgunean hainbat argazki ikusgai jarri ditu Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak. Dokumentazio-zentro ahalik eta osatuena osatzeko bidean, urrats berria eman da.

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak ia 5000 argazki ditu bere artxiboan; hauetatik 2400, katalogatu, identifikatu eta digitalizatuta.

120 argazki publiko egin dira eta hauekin denekin, datu-base berri bat osatu da. Bilaketa-sistema erraz baten bidez, ikusgai daude sarean: **www.trikimailua.com** helbidean.

Herri musikaren udabarria: Mungia Folk 09 jaialdia

Mungiako Musika eta Dantza Eskolako Herri Musikatresnen mintegiak **HERRI MUSIKAREN UDABARRIA**. **MUNGIA FOLK 09** jaialdia antolatu du, **martxoaren 27, 28 eta 29rako**. Aurtengoa **hirugarren edizioa** izango da.

Ekintzen artean, **Euskal Herriko koplakantarien II. Txapelketa** antolatu dute **martxoaren 29rako**. Hona hemen bertan **parte hartzeko oinarriak**:

- Parte hartu nahi izanez gero, bidali zure datuak (izen-abizenak, adina, bizilekua, telefonoa) **mungiafolk09@yahoo.es** helbidera. Bestela, berriz, deitu **94 674 02 35 telefonora**, eta utzi zeure izen-abizenak eta harremanetarako telefono zenbakia.
- Antolakuntza-taldekoak harremanetan jarriko dira zurekin, eta txapelketa egunerako prestatu beharreko piezak bidaliko dizkizute.
- Hiru maila izango dira:
 - A MAILA: 11 urtera artekoak.

• B MAILA: 12 eta 16 urte bitartekoak

• D MAILA: 16 urtetik gorakoak

• Maila bakoitzeko jota eta porrusalda jo beharko dira (soinu-txikia, alboka edo dultzaina, eta panderoa erabilia). Aldez aurretik e-mailez (**mungiafolk09@yahoo.es**) bidali beharko dira piezak, edo txapelketaren egun berean aurkeztu.

• Epaimahaiak kontuan hartuko du panderoa nola jo den (erritmoa, pausoen garbitasuna...), baina garrantzi handiena koplak kantatzeko moduak (ahotsa, afinazioa...) izango du.

• Parte-hartzaileek lehendik grabaziorik egin gabekoak izan behar dute.

Beraz, badakizue, oinarriak gogoan hartu, eta **martxoaren 13rako izena eman**, egun horixe baita parte-hartzea ziurtatzeko azken eguna.